



“Ea osatzen garen”

Durango | Martxoaren 31n lore eskaintza egin zuen Karmele Zamalloa Zarate bonbardaketaren lekukoak • **5**

Muniketa eta Autzaganetik igarotzen den ibilbidea berreskuratuko du Zornotzako Udaberriko Klasikoak

Zornotza | Alejandro Valverde txirrindularia izango da faborito nagusia domekako lasterketa irabazteko. • **18**



“Batez ere baserritarrek deitzen didate eguraldiari buruz galdetzeko”

Udaberriko lehen egun eguzkitsuek agur esan diote neguari. Andoni Aizpuru ETBko eguraldi aurkezleak dioenez, aurtengo negua izugarri hotza izan ez bada ere, oso euritsua izan da. Hainbat lagun dira neguko eguraldiaren eraginpean bizi direnak euren zaletasuna, bizilekua zein ogibidea direla-eta. Zelan bizi izan dute negua? • **2-3**

LEHIOR ELORRIAGA

Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du, bihar, Landakon

Durango | Biltzen den diruagaz, maiatzaren 26an Durangon egingo den Ezgaitasun Eguna antolatzea dute helburu.

16. orrialdean



Gipuzkoako zaborra Mallabira ekartzearen aurka bat egin dute EAJk eta EH Bilduk • **6**





Andoni Aizpuru Murua
Eguraldi aurkezlea
Gabiria | 1964

“Ekaitz perfektua, elurte perfektua izan zen otsailekoa; gogoan izango dugu”

Otsailaren 28koa bezalako elurterik ez du ezagutu 25 urtean Andoini Aizpuruk. Euskal Herri osoan egin zuen elurra

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Sartu gara udaberrian. Elurra protagonista izan duen negu euritsua utzi dugu atzean. Hala ere, oraindik espero du elurterik Aizpuruk, eskiak jantzi eta inguruko mendietan ibiltzeko. 25 urte dira eguraldi aurkezlea dela; 18 Elorrion bizi dela.

Urteetako negurik euritsuena izan dugu aurtun?

Oso bustia izan da, bai. Ez da negu izugarri hotza izan, batez besteko

temperaturak nahiko ohikoak izan dira. Baina haizea ibili da, eta prezipitazio aldetik euritsua izan da, mendietan elurtsua. Egun askotan egin du, gainera. Esan behar da azaroan lehorte handia zegoela, sute arriskua ere bai. Oso lehorrak, epe-lak, izan ziren iraila, urria eta azaroa. Gero etorri da euria, ondo etorria, behar zen-eta. Baina asko egin du. Aste Santuko hilbete honetan utzi dio euria egiteari, hego-haizea etorrita. Baina oraindik botako du.

“

Ez da negu izugarri hotza izan. Baina haizea ibili da, eta negu euritsua izan da, mendietan elurtsua”

—

Seguraski, datorren astean elurra egingo du, Anboto barrenearaino.

Negu ezohikoa izan da?

Eguraldia beti mugitzen da estatis-

tiken barruan, baina bai. Hainbat urtetako datuen batez bestekoekin lortzen dira datu klimatologikoak. Aurtun ez dira iazko urtarileko itzotzak izan. Baina kaleak zuritu dira. Gogoan dudan azken negu gordin 2005ekoa izan zen. Harrezkero, seguraski ez du hainbeste zuritu horren maila baxuan, 100-300 metroan. Baina egon izan dira elurte handiagoak. Aurretiko neguak oso epe-lak izan ziren, nahiko lehorrak gainera. Euskal Herriko negua aza-

roaren 1ean hasi eta apirilaren 1ean amaitzen da gutxi gorabehera; hala diote inguruko baserritarrek ere. **Elurrak irudi esanguratsuak utzi ditu.** Aurtengo neguan sei bat elurte izan ditugu. Baina bakarria nabarmentzekoa: otsailaren 28koa. Euskal Herri osoan egin zuen. 25 urtean ez dut horrelako elurterik ezagutu. Handiagoak bai, baina hura berezia izan zen. Hegoaldetik fronte bero bat etorri zen, tenperatura hotzak hartuz, eta denean zuritu zuen. Denean oso antzera. Itsasertzeraino heldu zen, hirietan ere lodituz. Ez da ohikoa. Ekaitz perfektua, elurte perfektua izan zen; gogoan izango dugu luzaroan. Polita benetan. **Lehen elurteagaz batera Urkiolara joaten zara eskiekin.** Bai, ahal badut, bai. Aurtun, 48 egunetan hartu ditut eskiak, eta



JOSE MARI ASKASIBAR IRAZABAL
Abadiño (Urkiola)

Zelan joan da negua?

Negu nahiko gogorra izan da. Azaroan hasi zen elurra egiten. Ostean, Amabirjinaren Egunean. Zortzi elurtza egin ditu. Euri asko egin du, eta baita hotza ere, -6 gradu izan ditugu. San Antoniora arte hotz egiten du. Bideagaz ez dugu arazorik izan.

Bisitari asko joaten da Urkiolara elurraz gozatzen?

Neguan jende asko etortzen da. Baina, horretarako, gauza asko gertatu behar dira: astean zehar elurra egin behar du eta asteburuan eguzkia. Batzuetan arazoak daude jendeak edozein lekutan uzten dituelako kotxeak. Inoiz behien itxitura ere apurtu digute landara sartzeko. Alikate eta guzti. Horregatik, udaberrian ezin ditugu behiak landara atera, itxiturak apurtuta daudelako.

Udan ere etorriko da jendea.

Bai, baina ohiturak asko aldatu dira. Denbora onagaz jendea udaberrian eta udazkenean etortzen da Urkiolara. Udan jendeak gurago du hondartzara joan.



PERU ARRASATE IRIARTE
Durango

Anboton eskiatzen aritu zara aurtun. Lehenengoz?

Inguruetan ez da askotan egoten eskiatzeko aukera. Orain urte bi ibili nintzen lehenengoz. Aurtun elur asko egin duenez, sarritan joateko aukera izan dugu, bost-sei bider. Anbototik Asuntza ingurura jaitsi gara. Anboto ez

da eskiatzeko ohiko tokia, baina etxe alboan dagoenez, gehien gustatzen zaiguna da.

Inguruko beste mendiren batean ibili zarete?

Gorbeian ibili izan gara eta baita Aizkorri ondoan dagoen Butreai muino inguruan ere.

Ohiko eski estazioak baino zirrargarriagoak dira?

Bai, egia esanda, eskiatzeko modu desberdina da. Kontuz ibili beharra dago, materiala apurtzeko edo norberak min hartzeko arriskua dagoelako. Mendian beti dago arriskua, eta arrisku hori ahalik eta gehien minimizatzen saiatzen gara. Ezin gara egunero Pirinioetara joan, eta, beraz, hemen elurra egitean aprobetxatu egin behar!



IBON LASUEN ARABIORRUTIA
Abadiño

Traktoreagaz elurra kentzen jarduten duzu Abadiñoko hainbat auzotan. Ardura hori kontuan izanda, zelan joan da negua zuretzat?

Orokorrean, elurra kentzen baino, gatza botatzen jardun dugu gehiago. Hotz handia egin du eta prebentzio lana egin du-

gu. Mendietan bai, baina herrian elur gutxi egin du. Otsailaren amaieran elur asko bota zuen egunean, esate baterako, udalagaz gauzak aurreikusita genituen eta ondo lan egin genuen. Garbiago izan genituen auzobideak Matiena auzoko herrigunea bera baino.

Behiak ere badituzu. Baserritarra zaren aldetik, eguraldiak zelan eragin ditu?

Behiak basoan izaten ditugunontzat ez da negu ona izan. Euri asko egin du eta lupetza sortu da. Landak oso umel izan ditugu. Horregatik, ganadua oso berandu atera dugu. Nik asteon askatu ditut behiak. Iaz, oster, martxoan zeuden landan.

zenbaki hori borobiltzea espero dut oraindik. Urkiolan, Gorbeian eta Aizkorri inguruan eskiatu dut 45 egunetan; 700-1.500 metro inguruan —Piriniotan hiru bat bider—. Mendrakan (Elorrio) ere ibili naiz eskiekin. Azken elurtean, bikotekidea eta biok Apataraino jaitsi ginen kotxean, eskiak bertan sartuta. Bera Durangora joan zen kotxean, lanera, eta ni iraupen-eskiekin bueltatu nintzen Mendrakara, zazpi bat kilometro.

“

Aurten, 48 egunetan hartu ditut eskiak, eta zenbaki hori borobiltzea espero dut oraindik”

“

Deitu ere egiten didate eguraldiaz galdezka. Baserritarrek batez ere, eta gustura erantzuten diet”

Durungaldea kolapsatu egin zen.

Baldintza normaletan, egunsentia da eguneko unerik hotzena. Orduan mugitzen da jende gehiena lanera, eta elur pixka bat nahikoa da arazoak izateko. Hala ere, gu ez gaude prestatuta. Umetako ilusioa nuen elurra egitea, eskolara ez joateko, eta gaur egun ere pentsatu dut inoiz, “bota dezala metro eta erdi”, lanera ez joateko. Nire barruko umea piztu egiten zait elurragaz. Oso polita da.

Haize gogorrek ere izan dira.

Izan ditugu ziklogenesi indartsuak. Zabalanditik Arrazola alde-
ra 40 pago ikusi daitezke lurrean, 2009an Klaus ziklogenesiak botatakoak. Otxandio aldetik etorri zen hego-haizea, 200 km orduko haize-boladak izan ziren. Aurten,

negu haizetsua izan dugu, egon dira abisuak eta alertak itsasoagatik, baina nahiko ohikoa da hori. Olatualdi gogorrakoak izan ditugu. Abisuak ondo neurtu behar direla uste dut, ematen den informazioa eta nola ematen den neurtu behar dela. Bestela jendea beti dago alertan. Gainera, efektibitatea galtzen du. Baina hedabideek, oro har, asko dramatizatze joera dute.

Ipar poloa ohi ez bezala berotzeak zuzenean eragin du?

Artikoa gero eta errazago urtuz doa, eta are eta epelagoa den ur horrek ekaitzak sortzeko prozesuan du eragina: errazago sortzen dira, eta ohi baino beherago jaitsiz gero, gurean euri gehigo eta tenperatura hotzagoak eragingo dituzte. Udan ohi baino gehiago urtu zen Artikoa, ekaitz gehiago eta sakonagoak sortuz. Indartsuagoak dira eta hegoalderago heltzen dira.

Kalean galdetzen dizute eguraldiari buruz? Baduzu pasarterik?

Bai, deitu ere egiten didate galdezka. Baserritarrek batez ere, eta gustura erantzuten diet. Kalean ere, jaiak, eski probak... direla-eta galdetzen didate. Pasarteak? Arantzazun gora eskiekin gindoazela azkena. Ia nora gindoazen esan ziguten, “ez dago-eta elurrik!”. Albokoak esan zion: “honek jakingo du”. Goian elur askorik ez zegoen arren botak jantzi eta bueltatxoa eman genuen. Halakoak, asko! Eta kaferen bat ere irabazi dut. Beste batean, San Blasetan zurituko zuela esan nion bati Apatan. “Bai zera! “esan zidan. Zuritu zuen.

Udaberriak emango du ezusterik?

Ez dakit. Tenporak hor daude, zikloak era bai... ez diot horri kontra egingo, baina urtaroko iragarpena egiterik ez dago. Hor dago erronka. Ondo moldatzen gara 3-5 eguneko iragarpenekin, joerak betetzen dira, baina epe luzerako iragarpenak egitea oso zaila da.

“Ez da negu oso txarra izan, hotza ere ez, baina negu gogaikarria eta luzea izan da”

Otxandion izan ohi dira eskualdeko elurtzarik handienak, eta brigadako behargina den Juan Pablo Arruabarrenak aurtengo neguan eduki duten lanaz berba egin du



Arruabarrena, Otxandio plaza. 17 urte daramatza lanean udaleko brigadan.

OTXANDIO • MARKEL ONAINDIA

Juan Pablo Arruabarrena Bengoak (Otxandio, 1965) ondo daki zer den elurra kentzea brigadako bere lan-kideagaz batera. Eguzkiaren babes epelean jaso gaitu plazan.

Zelako negua egin du Otxandion?

Ez da negu oso txarra izan, hotza ere ez, baina negu gogaikarria eta luzea izan da. Sarri egin du elurra, baina gutxi. 20 bat zentimetro bota ditu gehienez; mutikotan eza-gutu genuenagaz alderatuta, ez da hainbesterako izan. Azken urteetan gutxiago egiten du. Orain bost urte, bai, 55 zentrimetro inguru eduki genituen. Baina azken elur-

tza handia 2004an izan zela uste dut, metro bete bota zuenean. Astebetez inkomunikatuta egon ginen. **Zelan antolatzen zarete elurteei aurre egiteko?**

Telebistak edo Aldundiak iragartzen duenean, makinak eta gatza prestatzen hasten gara. Estualdi batean 06:00etan ekin behar badiogu, dena prest egon dadin. Kale nagusiak, lehentasunezkoak direnak, garbitzen ahalegintzen gara lehenik. Eskolarakoa, farmaziarakoa, medikuarenerakoa, autobusa pasatzen dena... Gero, baserrietara joaten gara, jende gutxien bizi delako. Aurten, bost elurtzatik bakarra egin du leiagaz, eta horixe izan

da gogorrena. Baina, bestela, ez dugu arazo handirik eduki.

Brigadakoez aparte, boluntario talde bat ere badago, ezta?

Bai. Suhiltzaile boluntarioen talde bat dago. Asteburuetan izaten da, eta aurten elurra aste barruan egin duenez beti, ez dute parte hartu. Gainera, kasualitatez udalak brigadan laguntzeko pertsona bi kontratatu ditu, eta lana banatu dugu. Lagun bi elurra kentzeko makinekin ibili gara, eta besteak palekin. Horrez aparte, Otxandion badago elurra kentzeko auzolanerako kontzientzia, bakoitzak bere kale zatitxoa garbitzeko, edo etxe inguruan gatza botatzeko.



TXARO ORTIZ DE ZARATE

Iurreta

Zelan konpondu zara negu honetan argazkiak ateratzera joateko?

Nahiko ondo, egia esateko. Kamera busti izan zait, eta ni ere goitik behera busti naiz, baina berdin-berdin joan naiz argazkiak ateratzera.

Eta argazkiak ateratzeko?

Hor gaitzago eduki dut.

Argazkiak ateratzerakoan argia oso garrantzitsua da, eta euriak ez du bereziki laguntzen horretarako. Egia esateko, asko eragin didate aurtengo euriteek. Horrez gainera, ikuspena ere asko baldintzatzen du, baina, aldi berean, argazki ezberdinak ateratzeko baliagarria da, baita ere. Eta kopuruari ere eragiten dio: ateratzen diren argazki guztietatik gutxiago dira erabiligarriago direnak.

Aspalditik ikusten ditugu zure argazkiak EITBko eguraldi tartean. Noiztik zabilta argazkiak ateratzen?

Jubilatu eta gero hasi naiz, batez ere, argazkiak ateratzen; eta eguraldi tartera bidaltzen, 2013az geroztik, gutxi gorabehera.



JESUS MARI URIBELARREA ITURRIAGAETXEBARRIA

Mallabia

Zelako negua izan da aurtengoa?

Azken urteotan izan dugun neguagaz alderatuta, aurtengo negua gogorra eta luzea izan da. Esaterako, Mallabian aurtengo neguan lau bat bider izan dugu elurra.

Negurik gogorrenetarikoa dela esan daiteke?

Ez, izan ditugu negu gogorrakoak. Orain 25 bat urte astebeteko elurteak izaten genituen. Elurra kendu orduko berriro egiten zuen eta etxetik mugitu ezinik egoten ginen. Aurten ez dugu horrelakorik izan. Otsailaren 28an elur dezente egin zuen arren, eguerdirako errepideak garbi zeuden eta etxetik irteteko moduan egon ginen.

Auzoko bideak garbitzen ibilitakoa zara.

Bai. Lehen auzo bakoitzak zuen ardura bere ingurua garbitzeko. Gu, esaterako, traktoreagaz eta guk egingako burdina batzuekin aritzen ginen auzoa garbitzen. Azken urteotan, udalak du ardura hori.



ZIORTZA ISASI CRISTOBAL

Elorrio

Ohi baino negu gogorrakoa izan dela igarri duzue errepidean entrenatzen zareten txirrindulariek?

Aurreko urteagaz alderatuta, elur, euri, hotz eta haize hauek nabarmen eragin digutela nabaritu dugu. Asko busti gara, eta sarritan errepidera irten ezinik ere egon gara.

Egin duen elurra azkar urtu da. Beraz, txirrindularien kasuan euria izan da kaltegarriena?

Euria izan da txarrena, bai. Lau orduz errepidean bustita... Horrez gainera, katarro gehiago harrapatu ditudala ere igarri dut. Egun batean 0 edo 2 gradutara ibili, eta bat-batean 13ra pasatu gara; aldaketa horrek gorputzean eragiten du. Gure mailako txirrindularirik gehienak ikasten gabilta, eta hemen entrenatu behar izan dugu. Baina beste batzuek Benidorm aldera jotzen dute, entrenatzeko eguraldi hobearen bila. Hemen geratzen direnen kasuan, autoa hartu eta Nafarroa aldera joaten direnak ere badaude.

ETSren eta udalaren hitzarmena auzitegieta eraman dute EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak

Gobernu Taldearen ustez, auzibidearen atzean “interes elektoralista” dago



Durangoko tren geltokia eta haren inguruak.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Durangoko EH Bildu eta Herriaren Eskubidea alderdiek Eusko Trenbide Sareak (ETS) eta Durangoko Udalak sinatutako hitzarmenaren aurkako auzibidea abiatu zuten urtarrilean. “Bide judiziala jarri dugu martxan, Durangoko herritarren interesen aurka doan hitzarmen baten aurrean gaudelako”, azaldu du Eider Uribe EH Bilduko ordezkariak. Uribek dioenez, “esleipen akats baten erruz” ETSk Durangoko Udalari zor dizkion 4,2 milioi euroak nola ordainduko

Herriaren Eskubidea:
“Uste dugu hitzarmen
hau kontuak koadratzeko
erabiltzen ari direla”

dizkion zehazten da hitzarmen honetan. “Uste dugu hitzarmen hau kontuak koadratzeko erabil-tzen ari direla”, dio Jorge Varela Herriaren Eskubideako zinego-tziak. Auzibidea abiatu duten bi alderdien ustez, zorra bi zatitan kitatuko da. Alde batetik, 121.000 euro dirutan ordainduko dira. Bes-tetik, faltako liratekeen 4,1 milioi euroak hiru zatitan kitatuko dire-la diote. 2,6 milioi euro trenbidea zegoen lurren transferentzia mo-duan, 1,3 milioi euro urbanizazio obra batzuegatik eta 140.000

euro, gaur egun dauden egiturak kentzeagatik. Trenbidea igarotzen zuten lurren transferentziak (Ezkurditik Fauste kaleraino eta Alluitzetik Iurretara doazenak) ez direla “legeak ezartzen dituen prozedura bidez balioztatu” diote oposizioko bi alderdiek. Gaineratu dutenez, ETSk lur hauek ez ditu erregistratuta. Trenbideko espazio horretan, bi errei izango lituzkeen errepidea eraikitzeko asmoa dagoela diote, tren geltokiaren ondoan eraikiko liratekeen 500 etxebizitzek eragingo luketen trafikoa bideratzeko.

Gobernu Taldearen erantzuna

Gobernu Taldearen ustez, ostera, auzibide horren atzean “asmo oportunista eta izaera elektoralista” daude. EAJ-PSE-EEk argitu duenez, salaketa tramitera onartzeak ez du nahitaez esan gura salaketak aurrera egingo duenik”, ezta hitzarmena “blokeatuta” dagoenik ere. Gobernu Taldearen ustez, auzibideak “durangarrei eta ondorioz bere ongizateari eta udalerriren garapenari kalteak sor diezazkieke”. EAJ-PSE-EEko ordezkariak mezua bidali diete oposizioko bi alderdiei: “Oposizio erantzule eta arduraduna egiten jarraitzeko eskaera egiten diegu, azken finean, hori baita hautetsontzietan emandako mandatua. Eta bakarrik onura mediatikoa lortzeko helburua duten trikimailuak alde batera uzteko ere eskatzen diegu”.

**Sapuetxeren aldeko
jaia antolatu dute,
“urte hauetan
bizitakoa ospatzeko”**

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Urteetako zurrumurruen ostean, badirudi aurten botako dutela Sapuetxe eraikin okupatua. Izan ere, udalak eta URA agentziak eraisketa garatu ahal izateko hitzarmena sinatu dute, eta bakoitzak 425.000 euro ipiniko ditu. Erreka gainean dagoen eraikina botatzeaz gainera zubia berrituko dute, ingurua uholdeen arriskutik babesteko asmoz. Bada, hurbil egon daitekeen eraisketaren aurrean, “urte hauetan guztietan Sapuetxen bizitakoa ospatzeko”, jaialdia prestatu dute okupazio proiektuko kideek, apirilaren 14rako.

**Udalak eta URA
agentziak eraikina
eraitsi ahal izateko
hitzarmena sinatu dute**

14:00etan bazkaria egingo dute bertako produktu ekologikoekin eta, horren ostean, 15:30ean, hamahiru musika talde batuko dituen rock maratonia hasiko da, gehienak Durangaldekoak. Amaitzeko, DJ bat egongo da. Antolatzaileen esanetan, jaialdiagaz batuko den dirua isun bi ordaintzeko erabiliko dute.

Durangoko Maristak ikastetxeko ikasle talde bat Estrasburgon egon da, Europako Parlamentua ezagutzen

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Europako Parlamentuak antolatutako Euroscola lehiaketa irabazi ostean, Durangoko Maristak ikastetxeko ikasle talde bat Estrasburgo (Frantzia) egon da, martxoan. Horien artean, Julen Perez Blanco,

Mikel Lopez Tapiz, Jone Zulueta Isa-
si eta Paule Igartua Artetxe.

Nabarmendu dutenez, “beste herrialde batzuetako gazteekin egoteko aukera izan da onena. Haiek nola bizi diren, nola pentsatzen duten ikustea”, gaineratu dute.

Parte hartu duten Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako proiektuen artean, Jone Zulueta eta Paule Igartuaren ikus-entzunezko lana nagusitu da. "Berdintasun eskubidea jorratu genuen, beste herrialde batetik datorren herritar baten kasa eta harreman homosexualak dituen beste batena islatuz", azaldu du Zuluetak. Zuri-beltzean eginda, "horrek askoz indar handiagoa ematen dio berez indartsua den mezuari", esan du Paule Igartuak.



Estrasburgon egon den taldeko ikasleak, Durangon.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko apirilaren 6a
16. urtea - 715. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Eneritz Urrutibeaskoa Elordi eta Alazne Salcedo Artetxe.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Goian Kriskitineko dantzariak, Andra Mariko ekitaldian. Eskuman, Karmele Zamalloa lekukoa, biktimen aldeko lore eskaintza egiten.



“Justizia eta egia” erreklamatu dituzte bonbardaketaren 81. urtemugan

Erasoa nork planifikatu eta exekutatu zuen jakiteko eskubidea aldarrikatu zuen Irigorasek

DURANGO • MARKEL ONAINDIA
81 urte bete ziren, zapatuan, Italiar Aviazione Legionariako militarrek Durango eta Elorrioren aurkako eraso hasi zutenetik. Bonbardaketak eragindako 336 hildakoen oroimeneko ekitaldiak egin zituzten egunean zehar, eta Aitziber Irigoras alkateak “justizia eta egia” erreklamatu zituen eguerdian Benita Uribarrena parkean eginiko ekitaldi instituzionalean. “Bonbardaketa nork planifikatu, agindu eta exekutatu zuen jakiteko eskubidea dugu. Gure seme-alabek euren herriaren historia ezagutzeko eskubidea dute”. Bonbardaketaren egileen aurka

jarritako kereila artxibatu egin du epaileak, momentuz, baina errekurritu egin du udalak.

Zamalloak leihotik ikusi zituen hegazkinak, eta euren etxean ere jausi ziren bonba batzuk

Udaleko alderdi guztien ordezkariak aparte, Iñigo Urkullu lehendakaria ere egon zen bertan.

Bargundiako lekukoa
Bestalde, Gerediagak eta Kriskiti-

nek iluntzean antolatutako ekitaldian Karmele Zamalloa Zarate 94 urteko iurretarrak egin zuen lore eskaintza. Bargundia baserrian bizi izan zuen kolpisten bonbardaketa. Leihotik ikusi zituen hegazkinak, eta euren etxean ere jausi ziren bonba batzuk, kalteak sortuz. “Ea osatzen garen”, esan zuen ekitaldi amaieran, erasoak ariman utzitako zaurien harira.

75 urte bete dira jesuiten eliza berriz altxatu zutenetik, eta, horregatik, Koldo Katxo jesuitak ere berba egin zuen. Sasoi hartako irakasle errepresaliatuak ere gogoan eduki zituen Katxok.



Udaleko alderdi guztietako ordezkariak parte hartu zuten eguerdiko ekitaldian.



Goiko irudian Karmele Zamalloa, erdikoan alkatea eta behekoan lehendakaria.

guk gure etorkizuna eraikitzen dugu

BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETA ERDI MAILA

- Beroa sortzeko instalazioak (iturgintza, eguzki instalazioak, gasa)
- Mantentze-lan elektromekanikoa

GOI MAILA

- Administrazioa eta finantzak
- Automatizazioa eta robotika industrialak
- Mekatronika industrialak
- Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa
- Elikagaien industriako prozesuak eta kalitatea
- Web Aplikazioen Garapena
- Efizientzia energetikoa eta eguzki energia termikoa (2. maila)

ATE IREKIAK: Apirilak 14

- 11:00etan ikastetxearen eta eskaintzaren aurkezpena.
- Ondoren instalazioen ikustaldia 13:00 arte.

lea artibai ikastetxea

HETEL

Markina-Xemein (Bizkaia) • 94 616 90 02 • info@leartik.eus • www.leartik.eus

Gipuzkoako hondakinak Mallabira ekartzearen kontra bat egin dute EAJk eta EH Bilduk

Gipuzkoako hondakinak jasotzeko abiatutako lehiaketa publikora Mallabiko Betearte enpresa baino ez da aurkeztu



Momentuz, arriskutsuak ez diren hondakin industrialak bakarrik jaso ditzake Mallabiko zaborteak.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Gipuzkoan 160.000 tona hondakin sortzen dira urtean eta ez dago dena kudeatzeko azpiegitura nahikorik. Zubiarekiko erraustegi berria egin bitartean, urtean 60.000 tona non kokatu bilatu behar dute. Ildo horretatik, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketak lehiaketa publikoa abiatu zuen eta Mallabiko Betearte izan zen proposamen bat aurkeztu zuen enpresa bakarra. Mallabiko Udalak ez du begi onez ikusten

Gipuzkoan urtean sortzen den hondakinen %35 Mallabira ekartzea. EAJ –Gobernu Taldea– eta EH Bildu bat eginda daude gai honetan. Kontra egiteko “euren esku dagoen dena” egingo dutela adierazi du Igor Agirre alkatea. Aitor Loiola Mallabiko EH Bilduko zinegotziaren ustez, hondakinak Mallabira ekartzea “eskandalo” bat litzateke. “Udaleko eta Aldundiko araudien gainetik pasatu beharko lirateke”, gehitu du.

Oraindik ez dituzte lanak esleitu. Udalak kalkulatu du apirilaren erdialdean egin daitekeela esleipena. Ostean, Beteartek lau hilabeteko epea izango luke tramite guztiak egiteko. Eusko Jaurlaritzaren baimena lortzea da horietako bat. Orain, arriskutsuak ez diren hondakin industrialak tratatu daitezke Betearten, eta hondakin organikoak tratatzeko baimena behar dute. Tramite hori martxan dago. “Horri buruz dakigun azken kon-

tua da URA agentziak informazio gehigarria eskatu diola Betearteri euren azpiegituran duten araztegiaren inguruan”, dio Igor Agirrek.

Jaurlaritzako baimena lortuz gero, baliteke zaborteak egokitzeko lanak egin behar izatea eta, horretarako, udaleko baimena beharko luke. Egoera horretan, udala “prozesua ahalik eta gehien luzatzen” saiaturiko litzateke. Tramitazioak

Beteartek udalean baimena eskatzen badu, prozesua ahalik gehien luzatzen saiatuko dira

burutzeko Beteartek duen lau hileko epea amaituz gero, “esleipena bertan behera” geratuko litzatekeela uste du alkatea. Borondate horregaz lan egingo du udalak, baina dena ez da borondate kontua. Legearen eta arauen barruan egin behar dute. “Udalak dituen argumentu juridikoak abokatuekin aztertzen ari gara”, adierazi du.

Aste Santuaren aurretik udalak herri batzar bat egin zuen. Herriarrak egoeraz informatzea zen helburua. “Batez ere udalak egoerari aurre egiteko zer argumentu juridiko dituen jakin gura zuten herritarrek”, azaldu du Agirrek.

Igor Agirre izango da EAJko alkategaia hurrengo udal hauteskundeetan

MALLABIA • JONE GUENETXEA

Mallabiko EAJk aho batez erabaki zuen, joan den otsailaren 14an, Igor Agirre izango dela 2019ko udal hauteskundeetan EAJk aurkeztuko duen alkategaia. Agirre da, gaur egun, Mallabiko alkatea. Prentsa oharrean diotenez, Agirrerren erronkarik handiena “udal zerbitzuak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea” izango da.



IGOR AGIRRE

Mallabiko alkatea alderdikideen aldetik jaso duen babes eskertu du. “Udalean lortu ditugun gauzak

EAJ ordezkatzeko dugun taldean elkarregaz egin ditugulako lortu ditugu”. Legeentzaldi honetan zuntz optikoa jartzea eta URAgaz sinatutako hitzarmena azpimarratu ditu Agirrek. Etorrizunera begira, “Mallabia hazteko eta herritarrentzat ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzeko proiektuak eta ideiak” pentsatu gura dituela azaldu du Agirrek.

Dakitenekin hika berba egiteko aukera eskainiko du hilaren 14ko kafe tertuliak

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Hika lagunarteko hizkera gero eta gutxiago erabiltzen da Mañarian. “Belaunaldi berrien artean galdu egin da hika arietzeko ohitura, ez da egiten ez etxean, ez kalean”, Garazi Etxebarria euskara zinegotziaren arabera. Horregatik, udalak hikaren transmisioa sustatzeko helburua duen ekimena antolatuko du apirilaren 14rako: hika berba egiten ikasi gura dutenek hika dakiten herritar bigaz —Ursula Donea elkarteak emakume bi— solasean arietzeko aukera izango dute.

Apirilaren 14an, 18:00etan, udalbatzar aretoan izango da kafe-tertulia

Kafe-tertulia formatua eman diote ekimenari. Klasea baino, solasaldi informala izango da. Gura duten denak bertaratuta daitezke 18:00etan udalbatzar artean hasiko den tertuliara.

Asteburuan musika izango da nagusi Elorrioko Erreka kaleko jaietan

Domekan bigarren eskuko produktuen azoka egongo da plazan, 10:00etatik 15:00etara



Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldeak giroa du azoka.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguen iluntzean pintxo-poteagaz hasi zituzten Elorrioko Erreka kaleko jaiak, eta domekara arte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da; batez ere, musikaz.

Hamaika tabernaren artean antolatu dute jaietako egitaraua, eta gaur, adibidez, 19:30ean, Sakatu Punk elektrotzaranga egongo da, eta 23:00etan Anita Parkerren kontzertua Ateneon.

Zapatu arratsaldean, 17:00etan, plazako frontoian pilota partiduak eskainiko dituzte pilota eskolakoek eta, 18:30ean hasita, Luhartz taldearen erromeria ere egongo da. 23:00etan, berriz, Enders, Storm eta DJ Jokin Alonso Gaztetxean ariko dira.

Domekan, 10:00etatik 15:00etara, 3R Azoka egongo da, bigarren eskuko produktuena. Beste behin, Elorrioko hainbat ekoizle kontsumo era jasangarriagoa bultzatzeko asmoagaz antolatu dute azoka. Bestalde, 12:00etan, Txapito Guzman eta Ibarrako Langostinuek taldeak azoka eta Erreka kalea giroa du.



Pilotalekuko teilatua guztiz berrituko dute inbertsioagaz.

Pilotalekuko obren inbertsioa 2018ko handiena izango da Garain

90.000 euroko diru partida gorde dute pilotalekuko teilatua berrizteko asmoz

GARAI • MARKEL ONAINDIA
90.000 euro erabiliko ditu Garaiko Udalak herriko pilotalekua berrizteko obretan, eta horixe izango da urteko inbertsiorik handiena. Udal aurrekontu ekonomikoan 134.000 euro gorde dituzte inbertsioen atalerako; beraz, kasik diruaren hiru laurdena bideratuko dute kirol instalazio hori konpontzeko.
Pilotalekuko teilatua guztiz berrizteko erabiliko dute 90.000 euroko diru partida. Oraindik aurrekontuan soilik jaso denez, denbora

bat beharko da lanak hasi orduko. Proiektua lizitatu eta adjudikatu beharko du udalak lehenik.
Zarrazteko asmoa
Aipagarria da egitasmoa luzatu egingo dela etorkizunera begira.
Udal aurrekontu ekonomikoan 134.000 euro gorde dituzte inbertsioen atalerako

33.000 euro jasoko ditu Herriko tabernako jatetxean leihoak aldatzeko egitasmoak
Izan ere, pilotalekua albotik zarrazteko asmoa du udalak, beste fase batean. Gaur egun, eskumako alde libre dago, leiho edo hormarik barik. Horregatik, teilatua ondo ipintzea pauso bat da etorkizunean obra horiek egin ahal izateko.

Obragaz, kirol instalazio hobe batez disfrutatu ahalko dute garaitarrek eta baita kanpotik pilotan jokatzera doazenek ere.

Herritarrei entzunda
Gainerako inbertsioei dagokienez, 33.000 euro jasoko ditu Herriko tabernako jatetxean leihoak aldatzeko egitasmoak. Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berraztertzen dabiltzanez, 10.000 euro ipiniko dituzte zeregin horretan jarraitzeko; datozen urteetarako herria zelan antolatu erabakiko dute plan horren bidez. Udalaren asmoen artean zenbait auzobide konpontzea ere badago, 25.000 eurogaz.
Aipagarria da ideia horiek herritarrei entzun ostean erabaki dituela udalak, aurreko lehenengoz kontsultatu dituzte eta.

Euskararen aldeko mezuak zabaltzeko argazki lehiaketa antolatu du udalak

IURRETA • JONE GUENETXEA
Iurretako Udalak *ikimilikiliKLIK* argazki-lehiaketa antolatu du apirilaren 1etik 30era. Lehiaketaren bidez, udalak herritarrek euskararen alde sortutako mezuak jaso eta zabaltzeko gura dituen herrian. Parte-hartzaileek Facebook, Twitter edo Instagramera igo beharko dituzte argazkiak, *#euskaraikimilikiliklik* traola erabiliz. Helbide elektroniko honetara ere bidali ditzakete: *euskaraikimilikiliklik@gmail.com*.
Sari bi egongo dira: batetik, epaimahaiaren saria argazki eta mezurik onenari; bestetik, herritarren saria. Irabazleek talde-bazkari bana jasoko dute La Guipuzkoana tabernan.

Berrizen argazkigintza tailerra antolatu dute herriko emakumeentzat

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Herriko emakumeentzat argazkigintza ikastaroa antolatu dute Berrizen. Ikastaroko antolatzaileek jakitera eman dutenez, 14 urtetik gorako emakume berriztarrek argazkigintzaz ikasteko aukera izango dute, martitzenero, apirilaren 10etik ekainaren 19ra.
Gariza Filmsek eskainiko du ikastaroa eta bere helburua herritarrek argazkigintzaren inguruko oinarritzko ezagutza jasotzea izango da.

Rafa Ruedak eta Gotzon Barandiaranek musika eta literatura uztartuko dituzte Mekoletako kantu afarian

Sortzaile biek osatutako errepertorioari Mekoletako eta Otxandioko abesti tradizionalak gehituko dizkiote

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Arkotxe kultur elkarteak kantu afari bat antolatu du zapatu honetarako, 22:00etan, Mekoletan. Kanturako gonbita Rafa Rueda musikariak eta Gotzon Barandiaran idazle eta kulturagileak egingo dute. Euskal Herrian musikak eta literatura izan duten lotura eta hartumana izango da emanaldiko haria. Adibide moduan erabiliko dituzten abestiekin kantu kantari jarri gura dituzte afaritarak batzen direnak. Euren osatutako errepertorioari Mekoletako zein Otxandioko kantu tradizionalak gehituko dizkiote.
Kantu afarirako sarrerak Arkotxe elkartearen, Fondan eta Kementsu elkartearen eskuratu daitezke, 25 eurotan. Guztira, 60 lagunentzako tokia dago.



Musikak eta literaturak izan duten lotura abestien bidez islatuko dute.

Karmelo Irastorzak jarraituko du Izurtzako jubilatuen elkartearen presidentea

IZURTZA • J.D.
Martxoaren amaieran urteko batzar orokorra egin zuten Izurtzako Ama jubilatuen elkartearen. Datozen urte bietarako zuzendaritza erabakitzea zen puntuetako bat. Azken urte bietako kideek jarraituko dute, Karmelo Irastorza buru dela. Irastorzarentzat hirugarren legegintzaldia izango da.
Azken urte bietan gora egin du Izurtzako jubilatuen elkartearen bazkideen kopurua. 27tik 40ra igo dira.



Jubilatuen etxea Matienako erdigunean dago

Eskola zaharreko eraikinaren etorkizuna udalak erabaki ahal izatea eskatuko diote Hezkuntza Sailari

Abadiñoko Udalak Matienako jubilatuen etxea dagoen eraikinaren desafekzioa eskatuko dio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari, apirilko osoko bilkuran erabaki zuten legez

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Gaur egun Matienako jubilatuen egoitza dagoen eraikinaren etorkizuna bere eskuetan izan gura du Abadiñoko Udalak. Horretarako, gaur egun jubilatuen etxea dagoen eraikinaren desafekzioa eskatuko dio udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari. Izan ere, lurra udalarena da, eta eraikina, berriz, Hezkuntza Sailarena. Horrela erabaki zuten martxoaren 27ko osoko bilkuran. Abadiñoko Independienteak-EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz aurrera irten zen ekimena. Osoko bilkuran Mikel Urrutia EH Bildu-

ko zinegotziak Gobernu Taldeari galdetu zion ea Plan Orokorrak jasotzen duen hezkuntzarako eraikin berriaren proiektuak jubilatuen etxean eragin dezakeen. Izan ere, Traña Plazan batxilergorako eraikin berri bat eraikitzea aurreikusita dago. Urrutiaren esanetan, susmoa du 7 milioi euroko kostua izango lukeen hezkuntzako erai-

Hezkuntzarako eraikin berriak jubilatuen etxean eragin dezakeen galdetu du EH Bilduk

AI-EAJren aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioagaz aurrera irten da ekimena

kin berria finantzatzeko, etxeak eraikitzea izan daitekeela irtenbideetako bat. “Bermatu gura dugu eskola zaharreko espazioan ez dela etorkizunean etxebizitzarik eraikiko”, azaldu zuen Urrutiak. Jose Luis Navarro alkateak, oster, proiektu hori ez zela bilkura horretako puntu horretan eztabaidagai erantzun zion, eta bozketari ekin zioten.

Zelaietako berrantolaketa erabakitzeke saio gehiago egitea eskatu du EH Bilduk

Navarro alkatearen esanetan, parte-hartze prozesua “behar bezala” egin dute eta aurrera jarraituko dute

ABADIÑO • JONE GUENETXEA

Zelaietako auzotarren proposamenak jasotzeko egun bat jartzea ez dela nahikoa azaldu du EH Bilduk apirilko osoko bilkuran aurkeztutako mozioan. AI-EAJren kontrako botoekin ekimena ez da aurrera atera. Jose Luis Navarrok azaldu duenez, gaia “behar bezala” landu da.

Mozioan azaltzen denez, “Zelaietako berrantolaketan beharrezkoa da auzokideen ikuspuntua uztartu eta erabakitzeke aukera ematea”. Zelaieta auzoko zati handi bat oinezkoentzat egokitzerakoan, herritarren kezka oinezko horien segurtasuna dela azaldu du Urrutiak. Gai hori eta

sor daitezkeen beste batzuk sakenago aztertu gura ditu EH Bilduk. “Herritarrek euren ideietatik sortutako proposamenen artean hautatzeko aukera edukitzea” eskatzen dute mozioan.

Herritarren kezketako bat oinezko horien segurtasuna dela azaldu du EH Bilduk

Jose Luis Navarro alkateak, oster, gaia behar bezala landu dela erantzun zion EH Bilduko eskaerari, eta berrantolaketagaz jarraituko dutela azpimarratu du.



1,2 milioi euro inbertituko dute Zelaletako berrantolaketan.

Apatako Barraski eta Anboto kaleak berriztuko ditu, aurten, Atxondoko Udalak

50.000 euro bideratuko dituzte kale bietan lanak egiteko; 25.000 euro kale bakoitzerako



Aurtengo urtean egingo dituzte lanak.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak 50.000 euro bideratu ditu Apatako Barraski eta Anboto kaleetan lanak egiteko. Martxoan aurrekontuak onartzeko osoko bilkuran jakitera eman zuten, Atxondoko Udalak 25.000 euro bideratuko ditu kale bakoitzeko lanak egiteko.

Kale bietan oinezkoentzat segurtasuna bermatzea izango da helburu nagusia, baita irisgarritasuna bermatzea ere. David Cobos alkatearen hitzetan, “gaur egun jende askok gura duen lekutik igarotzen

du errepidea, eta hori saihestu eta oinezkoen segurtasuna bermatze aldera zebrabide gehiago jarriko ditugu”.

Horrez gain, Anboto kalean aparkaleku gehiago jarri eta norabideak aldatuko dituztela jakitera eman zuten.

Geldi dagoen urbanizazio proiektua bultzatzeko egingo dituzte lanak Barraski kalean

Bestalde, Barraski kalean ere egingo dituzte obrak. “Lan hauen helburua geldirik dagoen urbanizazioari bultzada bat ematea da”, esan zuen David Cobosek.

Anboto eta Barraski kaleetan oinezkoen segurtasuna bermatu gura du udalak

Udalak egokituko dituen txakurrentzako guneak ez direla egokiak diote jabeek

ZALDIBAR • JONE GUENETXEA

Ordenantza aldaketagaz, abendutik Zaldibarren ez dago txakurrak solte ibiltzeko gunerik. Txakurren jabeak eta udala hainbat bider batzartu dira egoerari irtenbidea bilatzeko. Txakurrak solte ibiltzeko hiru gune atonduko dituela aurreratu du Zaldibarko Udalak: Gernikako Arbola parkeko berdegunearen zati bat, eta Goierri bidean eta Olazar pilotaleku ondoko belar-guneak. Guztira, 1.000 metro koadro izango dira.

Txakurren jabeek, baina, espazio hauek egokitzea ez dela irtenbidea diote. “Espazio txikiak dira eta ez dira nahikoa. Elkarbizitza bultzatzea gura dugu”. Olazar parkea erabili ahal izatea eskatzen dute txakurren jabeek, ordenantzaren aldaketa egin aurretik egiten zuten lez. “Ordu-tegiak jarrita eta bestelako neurriak hartuta, Olazar ikusten dugu lekurik egokiena. Beste kolektibo batzuentzat leku ona den moduan, guretzat ere bai. Elkarbizitza posible da”, diote.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentek eta Augusto Uriarte hondakinen bilketako zerbitzuaren arduradunak prentsaurrekoa eman zuten eguaztenean, eskualdean 2017an jasotako datuen balantzea egiteko —Durangok, Berrizek, Mallabiak, Otxandiok eta Zornotzak aparte gestionatzen dute—. Guztira, gaikako bilketari esker, hondakinen %33,6 birziklatzen da Durangaldean, puntu bat gehiago 2016koagaz alderatuta. Gainerako %66,4a errefusa da, kontainer berdera botatzen dena, hain zuzen ere.

2017ko balantzeak onetik eta txarretik dauka. Gaikakoaren puntu bateko igoeraz aparte, nabarmentzekoa da beiraren bilketa %7,3 igo dela. Inguruko eskualdeetako batez besteko onena da. Gainerako emaitza onen artean, objektu bererrerabilgarrien kontainer zurian %11,5 igo da bilketa, eta tamaina handiko hondakinena, %15,5.

Organikoan, etena

Materia organikoen bilketari dagokionez, %1,67 egin du behera. Lopezek argitu du ez dela alarma sortzeko datua, baina, eboluzioa ikusita, organikoaren birziklapena indartzeko neurriak hartzea erabaki dute. *On egin* izeneko sustapen kanpaina landu zuten, eta 15 kontainer gehiago ezarri ere bai. Gai-

Hondakinen %33,6 birziklatzen da Durangaldean, gaikako bilketa bidez

Beiraren bilketa %7,3 igo da 2017an, inguruko datu onena lortuta; organikoari dagokionez, %1,67 egin du behera, eta bere birziklapena indartzeko neurriak hartuko dituzte

nera, parte hartzeko beharrezko diren giltza eta materiala herrian bertan jasotzeko aukera eskaini dute, Amankomunazgora joan behar izan barik. Momentuz, kontainer marroietan ezin da okelarrik, arrai-

nik edo arrautzarik bota, eta hori egin ahal izateko baimena eskatu diote Aldundiari, organiko osoa batzeko bidean. “Uste dugu neurri hori oso positiboa izango dela jendea animatzeko”, esan du Lopezek.

Hondakinak pisatzen

Bestalde, kamioi berri bigaz leku eta herri bakoitzean jasotzen dena pisatu ahaliko dute. Horrela, zerbitzua eraginkortu eta kanpaina zehatzak egitea posible izango da.



Uriarte eta Lopez, ezkerretik eskumara, Behargintzako egoitzan prentsaurrekoa eman eta gero.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Lanerako gertu!

2018-2019

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 14 11:00
Maiatzak 23 18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



2019ko aurrekontuei begira, 265.000 euro zertan erabili erabakiko dute Zornotzako herritarrek

Udalak prozesu parte-hartzailea abiatu du maiatzera bitartean, herritarrek zein elkarteek proposamenak egin ditzaten

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

2019ko aurrekontuetako inbertsio batzuk herritarrek erabakiko dituzte. Udalak 265.000 euro gorde ditu prozesu parte-hartzaile baten bidez herritarrek euren proposamenak egin ditzaten. Maiatzaren 15era bitartean, 16 urtetik gorako herritarrek eta Zornotzako elkarteek eta erakundeek udalaren eta Ametx erakundearen webgunetan dagoen formularioa bete edo euren proposamena udaletxean edo Zelaietan entregatu ahal izango dute. Triptiko informatibo bat ere banatu dute etxerik etxe.

Udal sailek ikuspuntu teknikitik, juridikotik eta ekonomikotik aztertuko dituzte proposamenak

Proposamenek baldintza batzuk bete behar dituzte udalak aintzat hartu ditzan. Esaterako, udal eskumenekoak eta interes orokorrekoak izan beharko dira, eta



Maiatzaren 15era bitartean zornotzarrek hainbat modu izango dituzte euren proposamenak egiteko.

gehieneko iraunaldia urtebetekoa izango da. “Ez da zertan proiektu handien proposamena izan. Asmo txikiak ere izan daitezke, etxaurreko harlauzak apurtuta daudela, esaterako”, adierazi du Iker Basagoiti zinegotziak ekimena aurkezteko egindako prentsaurrekoan.

Proposamen guztiak batu eta gero, udal sailek haien edukia ikuspuntu teknikitik, juridikotik eta ekonomikotik aztertuko dute. Udal teknikarien iritziz bideragarriak direnek lehentasuna izango dute

Zornotzako 2019ko udal aurrekontuan sartzeko.

Aurrekontuan jasotzen ez diren proposamen bideragarriak hurrengo ekitaldietan gauzatu ahal izateko aukera dagoela ere adierazi dute udal ordezkariak.

Ama izatearren kaleratu gura duten langilea babesteko, kontzentrazioak

ZORNOTZA • J.D.

Zornotzako Plataforma Feministak salatu duenez, Zornotzako enpresa batek emakume bat kaleratu gura du ama izatearren. Egoera horren aurrean, plataformak bere “babesa” eskaini dio emakumeari, gertaera “irmoki” salatu du eta mobilizazioak iragarri ditu. Apirilaren 14rako, 12:00etan, kontzentziora deitu dute Zornotzako udaletxeko plazan.

Apirilaren 10ean eta 14an elkarretaratze bana egingo dute emakumeari babesa erakusteko

Ez da egoera salatzeke elkarretaratze bakarra izango. LAB sindikatuak beste batera deitu du datorren asteko martitzenerako, 09:30ean, Bilboko epaitegiaren parean. Egun horretan izango da emakumearen eta enpresen arteko epaiketa.



Aste Santua amaitzeagaz batera hasi dituzte Herritarren Arreta Zerbitzua egiteko lanak.

Zornotzan Herritarren Arreta Zerbitzua egiteko lanak asteen hasi dituzte udaletxeko beheko solairuan

Lanak hilabete eta erdi inguru iraungo dute, eta 100.000 euroko aurrekontua dute

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Udaletxeko beheko solairuan Herritarren Arreta Zerbitzua egiteko lanak hasi dituzte aste honetan. Gune berrian itxarongela bat, kontsultak egiteko balioko duen ordenagailu bat, zuzeneko arreta emango duten lau pertsona eta arreta teknikoa emango duten beste bi egongo dira. Bilera gela bat ere egingo dute.

Zerbitzu berriagaz “herritarrengandik hurbilago” egon eta “zuzeneko zerbitzu hobe bat” es-

kaini gura du udalak, ohar batean azaldu dutenez.

Lanak egiteko, hilabete eta erdi beharko da gutxi gorabehera, eta udalak 100.000 euro inbertituko ditu zeregin horretan.

Zuzeneko arreta emango duten lau pertsona eta arreta teknikoa eskainiko duten beste bi egongo dira

Zerbitzu berriagaz “herritarrengandik hurbilago” egon gura du udalak

Zerbitzuen birkokapena

Herritarren Arreta Zerbitzua egiteko lanak gauzatu bitartean, udaleko erregistro eta errolda zerbitzuak Bulego Teknikoko beheko solairuan eskainiko ditzutela gogoratu dute.

ALBERDI HARATEGIA

ASKATASUN ETORBIDEA, 1 DURANGO · TEL.: 946 817 658
SABINO ARANA, 1 ZORNOTZA · TEL.: 946 308 722



Hareek denporak!

Enkantea, Kristoren irudia lepoan nork eraman erabakitzeke

Otxandion Aste Santuko prozesioak egiten ziren sasoikoa da aste honetako argazkia, 60ko hamarkada hasierakoa. Eguen Santu eta Bariku Santu egunetan irteten ziren. Egun bakoitzean irudi desberdinak eramaten zituzten lepoan hartuta; argazkikoa Eguen Santu egunekoari dagokio eta Santi Kapanaga otxandiarak ateratakoa da.

Orduko prozesioak jendetsuak izaten ziren eta elizak

enkantea egiten zuen irudiak lepoan nork eramango zituen erabakitzeke. Diru eskaintzarik altuena egiten zutenentzat izaten zen ohore hori.

70eko hamarkada ingurura arte iraun zuten Otxandio prozesioek. Orduan, Elorrioko abade berri bat etorri zen Otxandiora. Bere gidaritzapean hainbat lan burutu zituzten elizan eta apurka prozesioak egiteari utzi zioten.

Sei hankako mahaia

Pilar
Rios Ramos
PSE-EE



Gaitasunen eguna

Era askotako arrazoiak ditugu ostiral honetan Euskadiko Orkestra Sinfonikoak Durangon egingo duen kontzertura joateko. Alde batetik, orkestra osatzen duten 80 musikarirekin batera, Ekhi Martínez eta Mireia Coma bakarlariak arituko dira, hurrenez hurren, 15 eta 16 urte dituzten gazteak. Bestetik, bildutako dirua osorik bideratuko da “Gaitasunen Eguna” antolatzeko.

Arrazoi ugari dugu kontzertura joateko, eta askoz ere gehiago “Gaitasunen Egunarekin” elkarlanean aritzeko

Denok dakigunez, abenduaren 3an egiten da Desgaitasunen Eguna, baina, Durangaldean, horrez gain, egun berezi bat dugu, “Gaitasunen Eguna” izenekoa.

Maiatzaren 26an egingo dugu, Geube, Río de Oro eta Síndrome de Angelman elkarteek eta Durangoko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak antolatuta. Haiekin batera, 75 elkarte eta erakunde inguru aritu dira elkarlanean (kulturrakoak, kirolekoak, gazteak, adinekoak, elkarte gastronomikoak...). Egun osoz ospatuko dugu Landako Gunean, eta haurrentzako jarduerak, sentsibilizatzeko tailerrak, musikako ekitaldiak eta milaka lagun bilduko duen herri-bazkaria izango ditugu.

Arrazoi ugari dugu, beraz, kontzertura joateko, eta askoz ere gehiago gure “Gaitasunen Egunarekin” elkarlanean aritzeko.

Durangaldea asteen

Gorka Palacios preso Frantziatik Espainiara eraman izana salatu dute

Durango I Gorka Palacios preso durangarra Frantziatik Espainiara eraman izana salatzeke, elkarretaratzera deitu zuten atzo iluntzerako, Durangoko Andra Marian. Frantzian zigor osoa bete du, eta orain Espainiako justiziak ezarritakoa bete beharko du. Palacios 2003ko abenduaren 14an atxilotu zuten, Pauen, Frantzian. 2012az geroztik, Saint Maurro (638 kilometrorra) kartzelan egon da preso.

Txosnaguneko kideek lehen batzar zabalera deitu dute jaiak antolatzeko

Zaldibar I Uztailean ospatuko dituzte Zaldibarko udako jaiak, eta herritarrak jarri dira dagoeneko zita horri begira. Txosnaguneko kideek, adibidez, batzar zabalera deitu dute domeka honetarako, apirilak 8. Ordua 19:00etan da, udaletxeko plazan. Jaietarako egitaraua prestatzen hastea izango da, hain zuzen, batzar horren helburua.

Itziar Mendiolagarai eta Maite Txurruka, Errigorak emandako otzaren irabazle

Durangaldea I Errigora proiektuak emandako otzara biren lehiaketa egin du ANBOTOK, eta dagoeneko plazaratu da zeintzuk diren irabazleak. Sorta ekologikoaren irabazlea Itziar Mendiolagarai izan da, eta sorta konbentzionalarena, oster, Maite Txurruka. Facebook bidez parte hartu behar zuten interesdunek, eta 157 lagun artean egin da zozketa.



Iurretako suhiltzaileek Eloy Palacio lankide asturiarra omendu, eta justizia eskatu dute

Iurretak I 2016ko apirilaren 7an Oviedon (Asturias, Espainia) hildako Eloy Palacio suhiltzailearen omenez kontzentrazioa egin zuten, martitzenean, estatuko hainbat suhiltzailek, eta, tartean, Iurretako suhiltzaileek ere bai. Denok gara Eloy lemapean kalera irten, eta suhiltzaile-etxeko sirenak jo zituzten.

Eloy Palacio 2016ko apirilaren 7an hil zen, lanean zebilela. Iurretako suhiltzaileek jakitera eman dutenez, Palacio “ardu-ragabekeria ausartegia” izan zuela adierazi du epailearen sententziak, eta erabaki horren aurka egiteko deitu zuten elkarretaratzera. Gainera, Palacioarentzat eta bere familiarentzat justizia eskatu zuten, hainbat kartelen bidez.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9. - IURRETA - Izen-abizenak - telefonoa - helbidea - Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

uxarte
SAGARDAOGINTZA
Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN
ASTEAN ZEHA
ENKARGUZ
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako

C E R A M I C A S
MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eltua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890



VI. Landare eta Lorezaintza Azoka

GARAI :: Apirilak 15

Landare azoka Garain

Garaiko landare eta lorezaintza azoka indartzen ari da urterik urte. Apirilaren 15ean azokaren seigarren aldia izango da. 10:00etatik 14:00etara, lorezaintzaren munduaz gozatzen duten ehunka lagunek aukera paregabea izango dute Garaiko hainbat txokotan jarriko dituzten postuak ikusteko. Iaz 22 postu atondu zituzten guztira, baina oraindik ez dute zehaztu zenbat egongo diren aurten. Iazko nobeda-deetako bat mantendu gura dute antolatzaileek: kontsigna. Izan ere, erositako landareak gordetzeko leku bat ipiniko dute, erosketa egin



‘Asuelto’ eta ‘Encuentros’ ikuskizunekin dantza garaikidea Arriolan

DANTZA | Dantza garaikidearen jaialdia egongo da gaur Arriolan. Izan ere, dantza ikuskizun bi eskainiko dituzte bertan, 20:30ean hasita. HURyCAN taldearen

Asuelto da lehenbiziko emanaldia. Bertan, dantzarien gorputzek talka egiten dute, gorputzen mugimenduekin izaki bizidunen magia erakusteko asmoagaz.

Denis Santacanaren *Encuentros* lana, oster, teknika askoren nahastea da. Espazio-denbora-aren eta antzerkigintzaren arteko mugak deusezteak du helburu, eta inolako aurreiritzi estiliskorik barik jarduten dira Santacana bera eta Victor Fernandez. Pieza honek dantza garaikidearen eta flamenkoaren arteko fusioa modu berezian ikusteko aukera eskaintzen du.

Apirilaren 6an

ELORRIO **musika**
Sakatu punk
elektrotxaranga,
19:30ean, kaleetan zehar.

DURANGO **musika**
Tekno gaua K-Style
(Zul), Serri, Mad
Veci, G.Bordas eta
Chuchi Powa musika
jartzaileekin, 23:59-
06:00 bitartean,
Plateruenean.

ELORRIO **musika**
Anita Parker taldearen
kontzertua, 22:30ean,
Ateneon.

Apirilaren 7an

ABADIÑO **musika**
Errepresioaren inguruko
hitzaldi-eztabaida,
19:00etan, **Pablo**
Hasel rap abeslariaren
kontzertua, 22:30ean,
gaztetxean.

ZALDIBAR **musika**
Micen kontzertua,
20:00etan, Castet
elkartean.

DURANGO **musika**
Euskadiko Orkestra
Sinfonikoaren
elkartasun kontzertua,
20:30ean, Landako
Erakustazokan.

BERRIZ **musika**
Marina Herlopen
kontzertua, 20:00etan,
Kultur Etxean.

DURANGO **musika**
Stai Zitto, Keniama eta
Guda Dantza taldeen
kontzertua, 20:30ean,
Plateruenean.

BERRIZ **musika**
Revolta Permanent
eta Stronger Together
taldeen kontzertua.
22:30ean, gaztetxean.

Apirilaren 8an

ELORRIO **jaia**
3R azoka. 10:00-15:00
bitartean, plazan.

ELORRIO **musika**
Txapito Guzman
txaranga. 12:00etan,
kaleetan zehar.



ostean goiza eroso pasatu dezaten bisitariek, landareak eskue-tan eduki behar izan barik. Urkiola Landa Garapena, Garaiko Udala eta Trumoitte elkarte ari dira azoka prestatzen, San Migel nagusien elkartearen laguntzagaz.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Ferixa Nausikoetako kartel lehiaketa martxan da

JAIK | Elorrioko Ferixa Nausikoak iragartzen dituen kartela aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du Elorrioko Udalak. Kartelak maiatzaren 31ra arte aurkeztu daitezke, Herritarren Arreta zerbitzuan. Urtero legez, aurkeztutako lanak Iturri Kultur etxeko sarreran ikusgai jarriko dituzte, herritarrek botoa eman dezaten. Herritarren iritzia kontuan hartuta, epaimahai teknikoak erabakia hartuko du ekainaren 22rako. Irabazleak 500 euro eskuratuko ditu.



DURANGO kontzertua
Olatz Salvador
musikariaren
kontzertua, **Aperitifa**
Session ekimenaren
baitan. 13:00etan,
Plateruenean.

Apirilaren 9an

ELORRIO ikastaroa
‘Zaintza barik, ez dago
bizitzarik’ ikastaroa.

Apirilaren 12an

BERRIZ solasaldia
‘Nola hobetu Berriz’
kafe solasaldiaren
saio berria, 10:00-
12:00 bitartean, Berrizko
nagusien etxean (izena
emateko, apirilaren 9a
baino lehen).

Apirilaren 13an

IURRETA ipuin
musikatua
‘Ina, nire ama afrikarra’
ipuin musikatua,
18:00etan, herri
bibliotekan.

DURANGO solasaldia
Jasone Osorok
idatzitako **‘12:00etan**
bermuta’ liburuari
buruzko literatura
solasaldia, 18:00-
20:00etan, Andragunean.

Apirilaren 14an

DURANGO deialdia
Sapuetxe gaztetxearen
agur jaia; tako jana,
14:00etan, Uhmas,
El Reciclador 10,
Maldita Shit, Puto
Bastardo, Storm,
Konorte, Moonshiners,
The Lionels, Stronger
Together, Desperdizio,
Klown eta The Enfermos
taldeen kontzertuak ,
15:30ean, Sapuetxen.

BERRIZ antzerkia
‘Oxido umore garratza’
antzezlan, **Pez**
Limboren eskutik,
19:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO antzerkia
‘Sherezade y las
capas de la cebolla’
antzezlan, **Vaiven**
konpainiaren eskutik,
20:00etan, San Agustin
kulturgunean.

DURANGO musika
Doctor Deseo taldeak
‘La Fuerza de la
Fragilidad, Palabras ante
el Espejo’ lan berriaren
aurkezpen kontzertua,
22:00etan, Plateruenean.

OTXANDIO deialdia
Auzolana
erabiltzaileegaz,
Gaztetxean.

Apirilaren 15era arte

DURANGO erakusketa
Josu Rekalderen
‘Erresilientziak’
erakusketa, Arte eta
Historia museoan.

DURANGO erakusketa
Durangaldeko emakume
artisten ‘Hausnarketak’
erakusketa, Arte eta
Historia museoan.

Apirilaren 6tik 15era arte

DURANGO erakusketa
Enrike Larramendiren
obren erakusketa,
Ezkurdiko udal aretoan.

Martxoa eta apirila bitartean

BERRIZ erakusketa
Ane Pikaza
ilustratzailearen
‘Landareak, lumak eta
beste inbasio batzuk’,
Kultur Etxean.

Apirilaren 8ra arte

ELORRIO kirola
‘Kirol astea’ 6-12 urte
bitarteko gazteentzat,
10:00-13:00/16:00-18:00,
plazan.

Apirilaren 10etik ekainaren 19ra

BERRIZ ikastaroa
14 urtetik gorako
emakumeentzako
argazki ikastaroa (izena
emateko azken eguna
apirilaren 6a), 18:00-
19:30 (martitzenero), kultur
etxean.



Zine- ma

:: Berriz KULTUR ETXEA

Errementari

barikua 6: 22:00

domeka 8: 19:00

:: Durango ZUGAZA

• Campeones

barikua 6: 19:30/22:00

zapatua 7: 20:15/22:30

domeka 8: 16:30/19:00/21:00

astelehena 9: 18:00/21:00

martitzena 10: 20:00

eguaztena 11: 20:00

• Un Sol Interior

barikua 6: 19:30/22:00

zapatua 7: 18:00/20:15/22:30

domeka 8: 19:00/21:00

astelehena 9: 18:30/21:00

martitzena 10: 20:00

eguaztena 11: 20:00

• El Club de los Buenos Infieles

barikua 6: 22:00

zapatua 7: 20:15/22:30

domeka 8: 19:00/21:00

astelehena 9: 18:30/21:30

martitzena 10: 20:00

• Peter Rabbit

barikua 6: 19:30

zapatua 7: 17:30

domeka 8: 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• La Forma del Agua

zapatua 7: 22:00

domeka 8: 20:00

astelehena 9: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• Tomb Raider

barikua 6: 20:15

zapatua 7: 19:30/22:00

domeka 8: 20:00

• El Hilo Invisible

astelehena 9: 20:15

martitzena 10: 20:15


• Peter Rabbit

zapatua 7: 17:00

domeka 8: 17:00

“Ouijaren alde iluna da ezagunena, baina nik positiboari buruz idatzi gura dut”

Hiru hamarkada baino gehiago daramatza Jose Manuel Duran atxondarrak ouija taulari buruz aztertzen eta idazten



Jose Manuel Duran Martinez
Gertakari paranormalei buruzko ikerlaria

Atxondo | 1972

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Biblioteca del Misterio argitaxeagaz ‘La Ouija, el juego del diablo’ liburuak kaleratu du Jose Manuel Duran atxondarrak. Gaiari buruzko hirugarren liburuak du.

Zer aurkituko du irakurleak liburu berri honetan?

Ustez beste aldeagaz kontaktua egiteko taulaz berba egiten dut liburuan. Betidanik arduratu nau

“**Neuk ikertutakoari buruz idatzi dut, edo nire esperientziei buruz; ez dut gustuko besteenaz berba egitea**”

gai honek eta asko idatzi dut honi buruz. Dakidana liburu honetan idatzi eta publikatzeko aukera eskaini zidaten, eta aprobetxatu egin nuen. Bilduma honetan publikatu beharreko neurrietara egokitu behar izan dut; hori dela-eta, nire esperientziei buruz eta nik entzun eta ikertu ditudan kasuei buruz mintzo naiz liburu hauetan; ez zait gustatzen telebistan ikusitako

kasuei buruz idaztea. Neuk egiten ditut ikerketak.

Esan bezala, arduratzen nauen gai bat da, eta honen inguruan dauden arriskuei eta jasotzen diren mezuei buruz idatzi dut. Ouijaren bidez zegaz kontaktatzen dugun azaltzen saiatu naiz, liburuaren mugek utzi didaten heinean. Nire ustez, ouijaren bidez ez dugu espirituekin berba egiten, ez dira hildakoak, baina ez dago hori egiaztatzen edo gezurtatzen duen probarik; beraz, ezin dut ez baietz ez ezetz esan. Nire ustez, esperientzietan bizi dena parte-hartzaileen adimenetik sortzen da gehienetan. Hala ere, kasu batzuetan beste zerbaitegaz kontaktatzen da; ez dakit zer izan daitekeen, baina bai uste dut zerbaite ezezagunagaz kontaktatzen dela.

Noiz izan zenuen lehenbiziko esperientzia ouijagaz?

Nire lehenbiziko esperientzia 15 urteagaz izan zen, 1987an. Gure adinagaz auto istripu batean hil zen bilbotar baten ustezko espirituagaz jarri ginen harremanetan. Garai horretan erasan egin zigun, eta sinetsi genuen. Bigarren esperientzia bat edukitzea erabaki genuen handik egun batzuetara, baina horra ez zen espiritu berbera agertu. Bigarren horretan, aurrekoaren laguna zela zioen bat agertu zen; lehenbizikoa arriskuan zegoela esan zigun, eta gure laguntza behar zuela ere

esan zigun. Horretarako, gure ari-mak deabruari eskaini behar genizkiola esan zigun. Hor ikasi nuen, ouijagaz kontuz ibili behar dela.

Gaur egun, horrelako komunikazio bat erdietsiz gero, ahalik eta daturik gehien aterako nizkion (NAN zenbakia, helbidea, telefono zenbakiak...), saioaren ostean ikertu ahal izateko. Komunikazio baten ostean, datu asko edukiz gero, eta horiek egiaztatuz gero, dudarik gabe kasu interesgarri baten aurrean gaudela esan dezaket. Horrek ez du

esan gura hildako bategaz komunikatzen ari garenik, noski.

Arriskutsua da ouija?

Erantzunak hartzeko moduak zeri-kusi handia du horretan; txantxa moduan hartzen duen jendea dago, eta horixe da, beharbada, egokiena. Niri betidanik interesatu zait fenomenoak, eta oso erraza da egiteko, gainera; hizkiak eta zenbakiak dituen folio bat eta 50 zentimoko txanpon bat nahikoa dira. Egia esan, mendekotasuna sortzen du, eta horrek arduratu egiten nau.

‘La ouija, el juego del diablo’ liburuan agertzen diren kasuak Durangaldean gertatu dira

LITERATURA • A.M.

Duranek berak bizitako edo ikertutako kasuei buruz baino ez du idazten edo berba egiten. Hirugarren liburu honetan ere horrela izan da. Durangoko kasu bat nabarmendu gura izan du Duranek idatzirikoen artean; izan ere, ouijaren erabileraren ondorioz indarkeria kasu bat ezagutu ahal izan du. “Aita hil zitzaion pertsona bat [Liburuan izen eta abizenekin aipatzen da] haren spirituagaz harremanetan jartzen saiatu zen. Biz-

pahiru egunez lortu eta gero, eten egin zen komunikazioa. Ostean, etxeko argazkiak buelta emanda zeudela konturatu zen; ateak zabaldu eta itxi egiten zitzaizkion arrazoirik barik, eta bi egunetan, errezatzen ari zela, ohearen aurka bultza egin zioten, eta izkinaren aurka kolpea hartu zuen”, azaldu du atxondarrak. “Ouija indarke-riagaz lotzen duen kasu bakarra izan arren, interesgarria iruditzen zitzaidan liburuan aipatzea”. Duranek berak edukitako esperien-


Gainera, gazteenek guzti-guztia sinetsi dezakete. Horregatik ikertu eta idatzi dut gaiari buruz; eskolatar ere joan izan naiz hitzaldiak eskaintzera, eta 2007. urtean ouija erabiltzeko gidaliburu bat ere idatzi nuen Año Cero aldizkarirako.

“**Aurrerantzean, ouijaren alde positiboaz idatzi gura dut, normalean alde ilunaz berba egiteko da eta**”

“**2007. urtean ouija erabiltzeko gidaliburu bat ere idatzi nuen Año Cero aldizkarirako**”

Noiztik daukazu idazteko afizioa?

Betidanik idatzi izan dut. Beti idatzi ditut beldurrezko istorioak, edota gertakari paranormalei buruz, aldizkari zein buletinetan. Orain, adibidez, mamuei buruz idazteko gogotsu nago. Hainbat ikerlari irakurri ditut agerpen batzuei buruz berba egiten; nik ere antzerako esperientziak bizi izan ditut eta interesgarria iruditzen zait horri buruz ikerketak egitea. Eta, nola ez, ouijari buruz berba egiten jarraitu gura dut. Liburu honetatik kanpo geratu diren gauzei buruz berba egitea gustatuko litzaidake. Batez ere, ouijaren alde positiboaz berba egin gura dut, egon badagoelako.



tziak ere azaltzen dira liburuan. “Ouijak gertukoekin zein pertsonaia historikoekin hitz egiteko balio du. Gu Hitlerregaz jarri ginen harremanetan hainbat bider, baina berak emandako datuak ezin izan ditugu berretsi gero”. Liburuak Ediciones Oblicuas argitaletxeak kaleratu du, Biblioteca del Misterio bildumaren baitan.

Ostalaritza gida

anboto



Durango



GORA GORA

Arriluzea kalea, 2 - DURANGO

Tel.: 946 8111 384

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



Durango



KOBKA JATETXEA

San Ignazio, 8 - DURANGO

Tel.: 946 810 003

Egile sukaldaritza eta tradizionala. Menu bereziak eta karta.



Durango



PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!



Muxika



ASTEI JATETXEA

Muniketa auzoa 8, MUXIKA

Tel.: 946 732 318

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak... Enpresa bazkariak. Eguneko menua.



Durango



IBAIZABAL KAFETEGIA

Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO

Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.



Abadiño



ABARKETERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO

Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

Estetika gida

anboto



Ile-apaindegia



946 582 996

Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO



Ile-apaindegia



IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491



Ana
Camarero

Ezkontza eguna

Oso berezia izan ohi da ezkontza eguna, eta, horregatik, hile batzuk lehenago hasi behar dugu prestatzen eta guztia antolatzen. **Hiru hile lehenago**, azalaren egoera baloratu behar da, ondo hidratatuta eta argizatuta egon dadin.

Bekainen diseinu on bat irregulartasunak zuzentzeko

Bizkarra eta bularraldea ere ez dira ahaztu behar, oso garrantzitsuak baitira.

Eskuak eta oinak. Ez da nahikoa azazkaletan kolore polita erakustea. Aurretik ondo zaindu behar dira.

Begiak. Begirada elegante eta intentsoa eskaini behar dugu egun horretan. Horregatik, **betileen luzatze** ikusgarriak proposatzen ditugu.

Makillajea. Ezkontza eguna hel-

du da, eta itxura naturala, argia eta ona lortu behar dugu makillajeagaz.

Ana Camarero Estetika Zentroan, ezkon-
gaiantzat deskontu bonuak eskaintzen
ditugu.



Estetika zentroa

PSE: 36/16

Ana Camarero
Edertasunerako tratamenduak
eta aholkularitza

Ezkongaiantzeko eta
gonbitatuentzako bonuak
**%25erainoko
deskontua**

Golenkalea, 16-1. esk. • 48200 Durango
Tel.: 946 817 380 • www.anacamarero.com

Zentzu eta irratia

‘Zintzilik’ lan berria aurkeztuko du Plateruenean Olatz Salvadorrek

Musikari donostiarrak azken lau urteetan sorturiko kantuak biltzen ditu ‘Zintzilik’ lanak



Skakeitan taldeko kidea ere bada Salvador

MUSIKA • A.M.

Olatz Salvadorrek bakarlari lez sorturiko abestiek osatzen dute *Zintzilik*. Musikari donostiarrak Skakeitan taldean hasi zuen ibilbide musikal profesionala, eta duela lau urtetik hona, gitarra lagun, ba-

karlari moduan ere badabil. Hain zuzen, urteotan ondutako bederatzik abestiek osatzen dute *Zintzilik*. Gitarra laguntzaileak sorturiko abesti hauek janzen lagundu diote Julen Idigorasek (bateria), Jagoba Salvadorrek (baxua) eta Borja Antonek (gita-

Hainbat kolaborazio ditu ‘Zintzilik’ diskoak; tartean, Basagurenek eta Bustosek abestu dute

rra). Domekan, Plateruenean aurkeztuko ditu, Aperitifa sessions delakoaren baitan; 13:00etan hasiko da emanaldia. Hainbat artista igaro dira denboraldi honetako Aperitifatik, besteak beste, Mice eta Eneritz Furyak.

Diskoa Eñaut Gaztañagaren

Olatz Salvadorren emanaldia 13:00etan hasiko da, Aperitifa Sessions-aren baitan

Gaztain estudioetan grabatu du Salvadorrek, *Kulunka* abestia izan ezik. Hau Mecca estudioetan grabatu du, aita eta osaba dituen Iñaki eta Eduardo Salvadorregaz batera. Diskoan beste kolaborazio batzuk ere eduki ditu donostiarrak: Jon Basaguren (Izaki Gardenak), Juan-txo Arakama (Glaukoma) eta Maria Bustos txelo-jotzailea, besteak beste. Berbetan, berriz, korapiloak askatzeari buruz jardun da Salvador; abesti batean Ane Labaka idatzi ditu hitzak, eta beste batekoak idazteko Beñat Gaztelumendiren testuetan oinarritu da. *Zintzilik*en diseinuari dagokionez, Nagore Legarretarenak dira argazkiak, eta Maitane Gartziandia arduratu da diseinuaz. Airaka argitaletxeak kaleratu du diskoak.

Geure Durangaldea

Martin Loizate Sarrionandia Ikaslea



Epaiazen zain

Gauzak dauden moduan uztea izan ohi da aukera bat. Baina heltzen da momentu bat “orain arte bai, hemen-dik aurrera ez”. Marra gorri bat, edo Richter eskalan ezin neurtuzko lurrikara bat herritarren kontzientzian, sendo zirudiena pitzatuz eta arrakalatuz egonkorra zen zorua. Errebelde izatea bai eta ez esatea da, edo ez eta bai: “Ez orain arteko zapalkuntzei, bai errepublika berri bati”.

Santo Domingoko azukre kainabera arloetan egin ziren errebelde Touissant L’ouverture eta Haitiren independentzia lortuko zuten gainontzeko esklabo beltzak. Errebeldian epaitu ostean fusilatu zuten Lluís Companys 1940an. Maria Merçe Marçalek hiru bertute eta hiru aldiz errebelde izatea eskertzen zion zoriari: emakume, langile eta nazio zapaldukoa. Errebelde deitu zuten euren burua Sierra Maestrasekoek, eta Radio Rebeldetik kontatzen zituzten euren ibilerak. Brendan Behan IRAko poetak tabernaren batean horditurik idatziko zituen *Confessions of an Irish Rebel* (Txalaparta 1999) autobiografiaren azken orriak, eta sarri izan dira “declarado rebelde” Espainiako Auzitegi Nazionallean euskaldunak. Deabruak eurak ere, zerutik kanporatutako aingeru errebeldeak baino ez ziren (orduko mass mediak desitxuratuak), apokalipsiaren eztaikitzenbatgarraren kapituluak dioenez.

Batzuk historiak absolutu ditu dagoeneko, beste batzuek pixka bat gehiago itxaron beharko dute oraindik. Denbora da poligrafo bakarra.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren elkartasun kontzertua, Durangon

Bihar, apirilak 7, izango da emanaldia, Landakon; bederatzigarren aldia da EOS Durangora datorrena

MUSIKA • A.M.

Zapatuan elkartasun kontzertua eskainiko du EOSek Landako Gunean. Pedro Halfter maisu ospetsuaren gidaritzapean jardungo dira. Maiatzaren 26an Durangon egingo den Ezgaitasun Eguna antolatzeke baliatuko da sarrerekin lortuko den dirua; Rio de Oro, Geu Be eta Angelman Sindromea elkarrekin antolatuko dute eguna.

Sarrerak hiru euroan daude salgai, Arte eta Historia museoan edo Kutxabank kanaletan. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa kide guztiekin etorriko da emanaldia eskaintzera; hau da, berau osatzen duten 80 musikariekin. Gainera, bi gonbidatu berezi izango dituzte elkartasun hitzordurako. Ekhi Martinez eta Mireia Coma biolinistak bakarlari gisa arituko dira abesti batzuetan.



EOS osatzen duten 80 kideak datoz Durangora.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Desgaitasunaren Mundu Egunaren alde
Apirilak 7, larunbata
20:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
SARRANGORIO-UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

PLATERUENA
www.plateruena.eus

PLATERUENA Kafe Antzokia Landako Hiribidea, 4A DURANGO Tel.: 946 030 300 jatekidea@plateruena.net	Apirilak 8 · 13:00etan OLATZ SALVADOR Kontzertua	Apirilak 14 · 22:00etan DOCTOR DESEO Kontzertua	Apirilak 20 · 22:00etan PAKO ESKORBUTO + ETSIAKEROAK Kontzertua
---	--	---	---



IURRETA

**Tellitu-n
hurrengo
eraikuntza**

3 logelatako
6 etxebizitza

2 logelatako
11 etxebizitza

Garajea eta
trastelekua barne

**Etorri
ikustera!**

DURANGO
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren
2 etxebizitzak!**

*Durango herrigunean
Energia eraginkortasun
handiko etxebizitzak*

Hiriko txaletak

*Oiz mendira begiratokiak
Leku zabalak*



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com

“Azken urteetan arazo nahiko izan dira motorrekin, eta UCI kontzientziatuta dago arlo horretan”

Euskal Herriko Itzulian motorrek txirrindulariak noiz aurreratu ditzaketen eta noiz ez kontrolatzen dihardu Jokin Bilbaok



Jokin Bilbao Mazaga
Txirrindularitzako epailea eta Euska Herriko Itzuliko antolaketa taldekoa

Durango | 1983

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO

Txirrindularitzako epaile lanetan bizitza erdi darama. Euskal Herriko Itzulian sarritan aritu da. Aurten ere errepidean dabil, baina beste zeregin batean. Antolakuntzako parte da eta ibilgailuen eta txirrindularien arteko koordinazioa zaintzen du: motor-gidariekin noiz aurreratu dezaketen eta noiz ez kontrolatzen dihardu. Gustura egiten dabilen lana dela dio.

Aurten antolakuntzan diharduzu. Zein da zure eginkizuna?

Lasterketan motorrean doazenak, argazkilariak, kamerariak eta abar, tropela noiz aurreratu dezaketen eta noiz ez kontrolatzen dut. Bideak nahiko estuak direnez, une askotan ezin dute aurreratu. Nik erabakitzen dut noiz aurreratu dezaket. Azken urteetan arazo nahiko izan dira motorrekin eta UCI kontzientziatuta dago arlo horretan. Ni epaile aritu naiz beti, baina aurten arlo hori kontrolatzeko eskatu didate, eta horretan dihardut.

Motor-gidariei irizpide batzuk markatzen dizkiezue?

Lehenengo egunean batzar tekniko bat izan genuen epaileekin eta motor-gidari guztiekin, eta irizpideak markatu genituen.

Dena araututa egon arren, lasterketan ezustekoak eta estres uneak izaten dira?

Bai, bai. Itzuliko lehenengo egunean, esaterako, Jaizkibetik aurrera 60 bat kilometroan motor-gidariekin ezin izan zuten aurreratu. Igoeretan ezin da, eta jaitsieretan, are gutxiago. Ondoren, Donostian sartu ginen, errepide estuetan. Igeldon, beste hainbeste. Une batean motor asko genituen bata bestearen atzetik, ilaran. Baina hau horrela da. Lasterketak telebistaz ematen dira, Europa osoan ikusi daitezke eta ahalik eta irudirik onenak eskaini behar dira.

Lasterketa batean epaile asko izaten dira?

Euskal Herriko Itzulian, esaterako, hiru mailatako epaileak daude.

“**Bideak nahiko estuak direnez, une askotan ezin dute aurreratu. Nik erabakitzen dut noiz aurreratu dezaket**”

UCItik hiru datoz, estatutik beste hainbeste, eta Euskal Herriko federaziotik bi: zortzi, guztira. Nazioartekoek dute ardurarik handiena, eurena izaten da azken hitza.

Zelan banatzen dira lasterketan? Denak errepidean izaten dira?

Bat kronometratzailea da, denborak hartzen ditu. Motorrean doan beste batek mendiko eta tarteko helmugetako denborak hartzen ditu, esaterako. Beste hiruk lasterketa kontrolatzen dute eta uneoro nazioarteko batzordeagaz hartu-emanetan daude.

Epaile lanetan zabiltzanean, zein izaten da jokabide eraginkorra, malgutasunez ala zorrotz jokatzeko?

Unearen arabera. Erabaki batzuk gogorak izan behar dira, eta motor-gidari bat egoztea erabaki zenezake. Telebistako kameraria zeraman

“**Euskal Herriko Itzuliko antolakuntzan lehenengo esperientzia dut eta, egia esanda, gustura nabil**”

motor-gidariren bategaz gertatu da inoiz, ez zituelako irizpideak betetzen.

Autoetan joaten diren taldeetako zuzendarien artean, zelakoa da panorama? Imajinatzen dut batzuk besteak baino gehiago kexatuko direla. Bai, jakina. Nazioartetik datozen epaileek ondo ezagutzen dituzte. Batzuk problematikoagoak dira eta

beste batzuk formalagoak. Baina, tira, kirol denetan moduan.

Zer duzu gurago, aurten egiten zabiltzan lana ala epaile aritzea?

Urte osoan epaile aritzen naiz. Euskal Herriko Itzuliko antolakuntzan lehenengo esperientzia dut honetan eta, egia esanda, gustura nabil.

Epaile zabiltzanean, zer ardura izaten duzu normalean?

Lasterketaren arabera. Nazioartean nabilenean, lasterketetako presidentearen eta bere hurrengoaren azpitik aritzen naiz. Estatuan presidente moduan ere aritzen naiz eta nirea izaten da azken hitza.

Zein izan da zure ibilbidean hartu behar izan duzun erabakirik konprometituenak?

Erabakiak hartzea egokitu izan zait, baina erabaki gogor-gogorrik ez dut hartu behar izan. Arazoren bat badago, aurretik berba egitea gustatzen zait.

Elkarriketarako irekia zara?

Lehenengo berba egin eta abisatu. Hori egin ostean, egoerak berdin jarraitzen badu eta beste biderik ez badago, ba, erabakiak hartu behar izaten dira.

Nondik datorkizu epaile lanetarako afizioa?

Aita Duranguesa elkartean egon zen eta osaba txirrindularitza epailea izan zen. Osabak errepideko zein ziklo-kroseko lasterketetara eramaten ninduen. Orduan izan nituen lehenengo esperientziak.

Muniketatik eta Autzaganetik igarotzen den ibilbidea berreskuratuko du Udaberriko Klasikoak

TXIRRINDULARITZA • JONE GUENETXEA

Ibilbidea izango da aurtengo Zornotzako Udaberriko Klasikoa lasterketaren nobedadeetako bat. Izan ere, Autzaganeko obrak direla-eta, 2013an aldatu zen ibilbidea berreskuratuko dute (171,6 km). Beraz, Muniketatik eta Autzaganetik igaroko dira txirrindulariak. Aurreratu dutenez, Zornotzako herrigunetik ere pasatuko dira, zaleen gozamenerako.

64. edizio honetan, domekan, profesionaletan diharduten 17 taldetako 137 txirrindularik hartuko dute parte. Joan zen asteburuan Lizarran irabazi zuen Movistar Team taldeko Alejandro Valverde izango da faborittoa, antolatzaileek ere aitortu duten moduan. Euskadi Basque Country Murias taldea ere Zornotzako Klasikoan izango da. Aurkezpenean,

Movistar Team taldeko Alejandro Valverde izango da faborittoa, antolatzaileen esanetan



Andoni Agirrebeitia Zornotzako alkateak Amorebieta Txirrindulari Elkarteari, babesleei eta lasterketan parte hartzen duten boluntarioei eskerrak eman dizkie.

“Harrobiaren aldeko apustua egingo dugu eta arriskatzeko prest gaude”

Ekainaren 30etik aurrera, Amorebieta futbol klubeko presidente izango da Jon Larrea zornotzarra; berak eta bere taldeak aurkeztutakoa izan da hautagaitza bakarra



Jon Larrea abokatua da ogibidez eta klaseak ere ematen ditu Deustuko Unibertsitatean.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Uztailetik aurrera, Jon Larrea Gonzalez (Zornotza, 1976) izango da Amorebieta futbol klubeko presidentea. Maria Eugenia Etxebarria, gaur eguneko presidentea, ordezkatzeko aurkeztu den hautagai bakarra izan da bera. Hamaika laguneko lan taldeak lagunduta, argi du bere proiektuko zutarria zein izango den: harrobia. “Herriko jendearen eta harrobiaren aldeko apustu sendoa egin gura dugu eta arriskatzeko prest gaude”, adierazi du ogibidez abokatua den zornotzarra.

Bigarren B Maila kategorian gogorra da, esperientzia duten eta zailduta dauden jokalarien gotorlekua. Behetik datozen jokalariek gazteei falta ohi zaizkien dohainak dira, hain zuzen. “Horrek ez dit beldurrik ematen”, adierazi du Larreak. “Arrisku hori hartzeko gogo dugu eta badakigu ondorioak zeintzuk izan daitezkeen. Harrobiko futbola-

gaz egindako lanak markatuko digu gure tokia zein den”, gehitu du. Entrenatzaileen formazioan sakontzea eta ikastetxeekin harremanak sakontzea dira harrobia are gehiago sustatzeko buruan darabiltzaten ideia batzuk.

“Harrobiko futbologaz egindako lanak markatuko digu gure tokia zein den”

Klubeko bazkide eta jokalaria

Amorebietako zuzendaritzan lehen esperientzia izango du, baina ondo eta barrutik ezagutzen duen kluba da. Umetatik bazkidea da eta klubeko futbol jokalaria izan zen: hiru urtez gazteen taldean eta beste urte bitan, nagusiekin. “Futbola asko gustatzen zait. Etxean betidanik ezagutu dut eta ni neu futbol jokalaria izan naiz”, esan du. Zaletasun horrek eta herriko jokalaria oinarri dituen proiektua garatzeko ilusioak eraman zuten bere burua presidente izateko aurkeztera.

Maria Eugenia Etxebarriak eskainitako laguntza azpimarratu du. “Niri laguntzeko prest eta behar nuenean besoak zabalik aurkitu dut”.

Adituaren txokoa

Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia



Eta orain zer?

Arauzko 22 jardunaldiak bete dira eta DRTko mutilek Oho-rezko B mailako sailkapenean azken aurreko postuan bukatu dute, eta etorkizuna airean dute. Hona, nire ustetan, egoera horren gako batzuk.

Batetik, eskarmentu falta. Azken hiru urtetan errelebo sakona egon da. Eskarmentua azpimarratzen dut, une erabakiorretan hartutako erabakietan irizpide finko bat faltan sumatu dudalako. Ez zegoen argi zer egin, eta aurkariak hori ez dute parkatzen, hortik joan dira hainbat aukera salbazioa eskuratzeko.

Bestetik, taldeak duen filosofia; hau da, liga osoan eta Bera-Berarekin batera talde bakarra da atzerriko jokalaririk ez duena, harrobiaren aldeko apustu sendoa egiten duen bakarra. Bat nator erabakiarekin, baina desabantaila itzela da besteekiko.

Bukatzeko, eta beti nire ustetan, taldeak ez du joko eredu argirik izan. Zer esan nahi dut? Nire ustez, zelaia eremu guztietan berdina jokatu dute, eta hori oso zaila da aurrera eramatea. Ez da berdina zure zelaian jokatzeko edo aurkariaren eremuan. Touchak, meleak, zigor kolpeak, ostikoak etab... joko esparru ezberdin hauetan estrategiak berebiziko garrantzia du eta hori ez dut argi ikusi, behintzat denboraldi honetan.

Drama bat litzateke jaistea? Nik ez dut horrela ikusten. Pena bat litzakete, baina jokalariek gazte asko daude, harrobia fruituak ematen ari da, eta belaunaldi polita dugu etorkizunari begira. 1986an kluba sortu zutenean ia inork ez zuen imajinatuko gaur egun dugun errealtatea, eta talde honek azken urteetan emandako posatasunak. Gora DRT!

Abadiñon San Prudentzio eta San Trokaz txapelketak hasiko dituzte asteburuan

Txapelketa bien artean, Euskal Herriko 48 pilotari igaroko dira Abadiñotik; final biak maiatzaren 19an jokatuko dituzte

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Barikuan hasi eta maiatzaren erdialdera arte ez da pilota partidurik faltako Abadiñon, San Prudentzio eta San Trokaz jaien inguruan antolatzen diren pilota txapelketak hasiko dira-eta asteburu honetan.

Kadete, gazte zein nagusi mailan arituko dira Euskal Herri osotik etorritako pilotariak, binaka zein lau t'erdian. Finalak maiatzaren

jokatuko dituzte. San Prudentzioetako finala maiatzaren 1ean izango da, Traña-Matienako pilotalekuan. San Trokazetako irabazleak maiatzaren 19an erabakiko dituzte, Zelaietako frontoian.

Guztira, 48 pilotarik parte hartuko dute txapelketa horietan, eta norgehiagokak bariku arratsaldetan Matienan eta domeka goizetan Zelaian jokatuko dituzte.



Kadeteen, gazteen zein nagusien mailako pilotariak etorriko dira Abadiñora.

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

